



Urriza eta San Miguel aurrez aurre, Masterreko finalean

Finala gaur jokatu dute Galarretan.
16:00etan hasiko da jaialdia eta
bigarren partidua izango da.

URRIZAK eta San Miguelek Banakako Masterreko finala jokatu dute gaur Galarretan. Errebatxa kutsuko finala izango da; izan ere, antzeko final batean bitan neurtu dituzte indarrak bi erremontistek eta bietan Urriza nagusitu da. Gaurkoan ere, Iruñeako aurrelaria da faborito. Finala Galarretan jokatu da eta 16:00etan hasiko den jaialdiko bigarrena izango da. /6

◆ LIBRE DINAMIKA

Idatzi adostua eta kontzentrazioa

Epaiketa politikoen aurka,
idatzi bat adostuko dute gaur
legegintzaldi eta alderdi politi-
ko desberdinetako hautetsiek,
udaletxean. Ondoren,
13:00etan kontzentrazioa
izango da Plazan. /2

◆ ERRUGBIA

Lagunarteko partidua, gaur

Hernanik lagunarteko parti-
dua jokatu du gaur
Getxoren aurka. 15:00etan
izango da Landaren. /7

❖ ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Hernaniko taldea aurkeztuko dute, gaur zortzi

Eskubide Sozialen Karta
martxan da Euskal Herrian
eta Hernanin ere talde bat ari
da lanean. Datorren larunba-
tean aurkeztuko dute Biterin.
Krisi egoera desberdinei kon-
ponbide bateratua aurkitzeko
jarri dute martxan Eskubide
Sozialen Karta. /2

GAUR KRONIKAN

EPA: matrikula zabalik /2

Fotonotiziak /2

LABURRAK: Hernani'n Musik,
Gazte Txokoa... /2

KIROLAK: esku pelota,
futbola, waterpolo, saskibaloia... /6-7

Eskelak /7

Goizuetan ezagutzen /8

Zinea /8



ARGAZKIA: K. CORBELLA

Unai Corbella hernaniarra, Senegalek 'harrapatuta'

BIDAIA bat egitera joan zen Hernaniko bi lagunekin, eta bigarren bidaia berak bakarrik egin zuen. Bazekien Senegalera bueltatuko zela. Unai Corbella hernaniarra erabat harrapatu zuen herrialde hark. Emaztea eta alaba hangoak ditu, eta zinema munduan lan polita egiten ari da: bost pelikula, telesailak... produkzio lanak batez ere, baina baita aktore lanak ere... /4-5

cenor **BALANTXA**

ELEKTROGAILUAK

Behar dituzun
elektrogailu
guztiak ditugu!!

NAGUSIA,17

☎ 943 33 40 22

BEHAR DITUZUN ELEKTROTRESNA GUZTIAK DAUZKAGU



Sabemos
kastellano

**tripontzi
taberna**

**ZATOZ
DASTATZERA!**

**BOKATAK
PLATER
KONBINATUAK**

**PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK**

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI 943 555 724

LIBRE DINAMIKA

Idatzi adostua eta kontzentrazioa, epaiketa politikoen aurka

Legegintzaldi eta alderdi desberdinetako hautetsiak elkartu eta idatzi bat adostu eta onartuko dute gaur. 12:30etan izango da udaletxeko Pleno Aretoan. 13:00etan, berriz, kontzentrazioa.

EPAIKETA politikoen aurka, Libre dinamikaren barruan hainbat ekimen ari dira egiten eta gaur, idatzi bat adostu eta onartuko dute legegintzaldi eta alderdi

desberdinetako hautetsiek. 12:30etan izango da hori, udaletxeko Pleno Aretoan. Ondoren, 13:00etan, kontzentrazioa egingo dute guztiek batera, Plazan.

Herritarrei, deia Kontzentrazioan parte hartzeko deia egiten diete herritarrei, epaiketa politikoak bertan behera geratu daitezen. ■

HELDUEN HEZKUNTZA - EPA-HHI IKASTETXEA

Graduatua ateratzeko aukera, bigarren lauhilekoan

Euskera, ingelesa edota informatika ikasteko aukera ere izango da EPAn. Matrikula epea, urtarrilean bukatuko da.

HELDUENTZAKO EPA-HHI ikastetxeak (Antziola 62) zabalik dauka matrikula epea, bigarren lauhilekoari begira. Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko aukera izango da eta baita hezkuntzak edo informatika ikasteko aukera. Ikasketa hauek, euskeraz eta gaztelaniaz egin daitezke. Eta matrikula dohainik da.

Graduatua ez dutenentzat, eskaintza Bigarren Hezkuntzako Graduatua ez dutenentzat honako eskaintza izango da: idazten edo irakurtzen ikasi, komunikazio trebetasunak hobetu, ezagupenak hobetu eta Graduatua lortu. Hizkuntzak eta informatika Euskera eta ingelesa ikasteko aukera ere izango da, asteen 2 egunetan. Eta baita

informatika ere.

Otsailetik ekainera Ikasketa hauek, otsailetik ekainera izango dira. Goiz, arratsalde edo gaueko ordutegia dago.

Matrikula urtarrilaren 31ra bitarte egin behar da, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Telefonoa: 943 33 53 18. ■

❖ HERNANI'N MUSIK

Euskal Herriko rock musikari buruzko hitzaldia asteazkenean, musikak lagunduta

Hernani'n Musik egitasmoaren barruan, hitzaldia eta musika entzunaldia antolatu du Musika Eskolak, dohainik. Asteazkenean izango da eta Euskal Herriko rock musikaren historiaz ariko dira. Ritxi Aizpuru izango da hizlaria eta musika entzunaldi akustikoa eskainiko dute Gatibu taldeko Alex Sardui eta Mikel Caballerok. 18:00etan izango da Sandiusterrin. ■

❖ GAZTE TXOKOA


Top Txef lehiaketa antolatu dute bihar

Top Txef lehiaketa egingo dute bihar Gazte Txokoan. 3 pertsonako taldeetan, osagai zehatz batzuekin, nahi den platera prestatu beharko da. Aldez aurretik, GazteTxokoan eman behar da izena. Bakarka ere apuntatu daiteke, gero bertan osatuko dituzte taldeak. 16:50etan Atsegindegiko plazan elkartuko dira parte hartzaileekin. Animatzeko dei egin dute, txapeldunak saria izango baitu. ■

❖ 'II PREMIO EL GUARDIAN DE LIBROS'

Botoa emateko aukera, Usabiagaren liburuari

El alcalde de Floridsdorf nobela, Miguel Usabiaga hemaniarrak idatzia da eta sari bat irabazi dezake: *II Premio El Guardian de Libros* saria. Saritua izateko, bere alde bozkatu daiteke helbide honetan: <http://bit.ly/ii-pegf>. Maki atzeritarrei buruzko lana da eta liburuak kontatzen du hiru atzeritarren istorioa eta Frankismo garaian Burgoseko kartzelatik ihes egiteko aurrera eraman zuten plana. ■



❖ LITERATUR SOLASALDIK

Arantxa Urretabizkaiaren '3 Mariak', astearteko solasaldirako liburu

Literatur Solasaldiaren barruan, Arantxa Urretabizkaiaren *3 Mariak* liburu izango dute hizketagai asteartean. Ane Mayoz ariko da dinamizatzaile lanetan. Ohi bezala, 19:30etan izango da Udal Liburutegian. ■

❖ UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula irekita, taldeetan sartzeko

Udal Euskaltegiko matrikula irekita dago eta aukera dago martxan dauden taldeetan sartzeko. Harremanetan jartzeko: 943 33 18 96 edo Karobieta 63 (anbulatorio zaharra). ■

❖ GOIZ EGUZKI

Inteligentzia emozionalari buruz, hitzaldia

Hitzaldia antolatu dute Goiz Eguzkin, urtarrilaren 28an. Inteligentzia emozionalari buruz ariko dira 17:00etatik aurrera. Nagore Vazquez psikologoak emango ditu azalpenak. ■

❖ ASTIGARRAGA

Gurutze Beitia eta Julian Iantziaren antzezlanaren emango dute gaur: 'La última oportunidad'

Antzerki emanaldia izango da gaur Astigarragako kultur etxean, 20:00etatik aurrera. Gurutze Beitia eta Julian Iantziaren antzezlanaren emango dute: *La última oportunidad*. Prezioa: 6 euro. ■

❖ DOKUMENTALA

Errumaniarren kanpamenduari buruz, informazio zabala


Errumaniarren kanpamenduari buruzko dokumentala eman zuten ostegunean Biterin, *Balta Txuria*, *Balta Berdea*, eta guztiz bete zen areto nagusia. Gaiaren inguruko hizketaldia ere egin zen ondoren. Anaitze Agirre dokumentalaren zuzendarietako bat bertan izan zen, besteak beste. ■



❖ LIBURU AURKEZPENA

'Jóvenes Burukides Bizkainos', eskuragarri

Ahoztar Zelaieta kazetariak bere azken liburua aurkeztu zuen ostegunean Hernanin: *Jóvenes Burukides Bizkainos. Clientelismo y 'Fontanería' en el PNV* (Txalaparta). Zelaietak lan honetan ikertu ditu administrazio publikoaren eta Ogasunaren kontra izan diren hainbat delitu eta ustelkeria kasuei dagozkien hainbat prozesu judizial, guztiak EAJrekin lotuak. ■



XX. TABERNETAKO BERTSOLARIEN TXAPELKETA



Igor Muñoa eta konpainia, 2012ko tabernetako txapelketan. Bihar ere gehienak ez dira urruti ibiliko.

Orain 20 urte... tabernako bertsoak indarra hartu zuen

Tabernetako Bertsolarien Txapelketa jokatu da bihar, 19:00etan, Garinen. Aurten berezia dute, 20 urte pasa baitira hutsik egin gabe, 1995ean Iurrek txapela jantzi zuenetik.

ASTERO aritzen dira, eta kalean dabilenak ezagutzen ditu. Gaua eta taberna dituzte gustoko, ordu txikiak nahiago, eta laguna behar dute ondoan, eta tragoa, ahal bada. Tabernetako bertsolariek kasta berezia dute, eta bereiztasun hori urtero ikusten da Hernanin, Garin tabernan, euren egun haundia izaten baitute: jende aurrean elkar probatzeko eguna: Tabernetako Bertsolarien Txapelketa.

Bihar jokatu da Tabernetako Bertsolarien Txapelketa, 19:00etan, Garinen, eta gutxienez 11 bertsolari ariko dira, bihar azaldu litezkeenak kontatu gabe. Elur Txori elkarteak dute bazkaria, eta bazkal ondoan elkar pixka bat probatuta azalduko dira seguruenera, Garingo tabladura, lehendik ere plaza hori ondo ezagutzen duten urtean behingo protagonistak: Oier, Oxan, Alkorta, Aingeru eta Haritz, Otxoto, Iraitz, Xapo, Joseba, Gorkita eta Iñigo. Gai jartzen, Arnaitz Lasarte, eta epaile lanetan: Peruarena, Casado, Zapi eta Muñoa.

Hogei urte ez dira berehala pasatzen, eta hogei urte horietan plaza erabat bete izana da, tabernetako txapelketaren arrakastarik haundiena.

20 urte 'belarriya jaten'

Gaurko errealitatea ere bazen orain dela 20 urte. Tabernetan famatua zen «elkarri belarriya jaten» ari ziren bertsolarien kantua. Zeinenak zuen indar haundiagoa, hori zen kontua. Eta txapelketa egin zuten, 1995ean, eta batenak baino gehiago, denenak hartu zuen indarra... gaur ere irauten duena.

1995ean Jarki taberna leporaino bete zen

Hogei urte ez dira berehala pasatzen, eta hogei urte horietan plaza erabat bete izana da, tabernetako txapelketaren arrakastarik haundiena. 1995-

ean Iñaki Iurrebaso *Iurrek* irabazi zuen, Jarki tabernan. Hurrengo biak ere hantxe jokatu ziren eta Olanok eta Txuriyak irabazi zituzten. Iruntxin, gaurko Tripontzin, Aritz Zerainek irabazi zuen, eta Garinen egin zen lehenengo Toloxak. Exteban urtero hor izaten zen, eta seigarrena hark jantzi zuen, 2000 urtean.

2001ekoa berezia izan zen, Txapeldunen Txapelketa jokatu baitzen. Hura, Ereñotzura joan zen, Zerainen eskutik. Geroztik hainbat txapeldun berri izan dira. Oxanek merezimenduak eginak zituen urtez urte, eta irabazi zuen bat, 2002an, eta baita bigarrena ere, 2009an. Txuriya da bi dituen bestea, 2003an jantzi baitzuen. Xapo ere ez zen ba urruti izaten... eta 2004koa harentzat izan zen. Leitzara, Astigarragara eta Irunera ere joan da txapela, Riaño, Casado eta Ugartek eramanda. Abillatsera berri, Angelek eraman du, Larre-Gaineran Lasartek, Martindegira Barrenetxeak, Osiñagara Iurramendik, eta Fagollagara, azkena, Pagolak. II

AURTEN BERTSOTAN

Azken orduko inkorporazioak kenduta, hauexek izango dira aurten 20garren txapelaren bila lehiatuko direnak: Oier, Oxan, Alkorta, Aingeru eta Haritz, Otxoto, Iraitz, Xapo, Joseba, Gorkita eta Iñigo.

19 TXAPELDUNAK

1995: Iñaki Iurrebaso 'Turre'
1996: Juan Mari Olano
1997: Jon Garmendia 'Txuriya'
1998: Aritz Zerain
1999: Gorka Toloxa
2000: Exteban Martiarena
2001: Aritz Zerain
2002: Jon Altuna 'Oxan'
2003: Jon Garmendia 'Txuriya'
2004: Mikel Lujanbio 'Xapo'
2005: Diego Riaño
2006: Angel Arruti
2007: Arnaitz Lasarte
2008: Urko Casado
2009: Jon Altuna 'Oxan'
2010: Aitor Barrenetxea
2011: Iñigo Ugarte
2012: Oier Iurramendi
2013: Eli Pagola

Eskubide Sozialen Karta aurkeztuko dute

Krisi egoera desberdinei konponbide bateratua aurkitzeko jarri dute martxan Eskubide Sozialen Karta. Hernanin, talde bat ari da lanean. Aurkezpena, gaur zortzi.

ESKUBIDE Sozialen Karta jarri da martxan Euskal Herri mailan eta hori bultzatzeko, talde bat lanean hasi da Hernanin. Guztiaren berri emateko, eta taldea ezagutzera emateko, aurkezpena egingo dute urtarrilaren 25ean.

Zer da Eskubide Sozialen Karta?

Eskubide Sozialen Kartak, gaur egungo krisi egoera desberdinei konponbide bateratua eman nahi die. Ekimen hau martxan jarri duten eragileek argi dute gauzak beste modu batean egin daitezkeela eta egin behar direla.

«Guztiok egonda bakarrik dauka zentzua»

Hernaniko taldearen aurkezpena urtarrilaren 25ean izango da, goizeko 11:30etan, Biteri kultur etxean. Herritar guztiei egiten diete dei aurkezpena azaltzeko, «bide honetan, gu guztiok egonda bakarrik duelako zentzua», diote.

Haurrentzako dinamika ere prestatuko dituzte. II



Eskubide Sozialen Kartaren logoa.

Unai Corbella

Hernaniar bat zinema munduan, Senegalen:

«Pelikuletan aktore txuri bat behar dutenean ni izaten naiz hautatua»

Senegalen zine munduan lan eginez bizi da Unai Corbella (Hernani, 1984). Hernanin ikasketak bukatu eta Madrilen sei urte egin ostean joan zen Senegalera, bi hernaniarrekin. Han jakin zuen

berriz ere bueltatuko zela, eta baita bueltatu ere. Senegalgo telesail famatu batean 'gaizto papera' egina, bost pelikuletan produkzio eta aktore lanak... Dakarren bizi da emaztea eta alabarekin.

Zer egiten du Hernaniko gazte batek Senegalen zinearen munduan murgilduta?

Galdera ona. Batzutan nik nere buruari ere galdera berbera egiten diot. Bueno zinemaren istorioa Casamancen bizi nintzela hasi zen. Han nengoela Madrilen lana egiten nuen garaiko lagun batek hots egin zidan. Andaluziako Jaleo Films produktorak komentatu zidan ea han bizi nintzenez, pelikula batean Senegalgo ekipoaren eta beraien arteko harremana errazteko pelikulan lan egin nahi nuen. Nik baietz esan nuen. Horrela hasi nintzen... gero han lanean nengoela Senegaleko ekipoko jendeari nonbait nere lana gustatu eta beraiekin Daka-rrera joateko proposamena egin zidaten...

Produkzio lanetan aritzen zara, baina baita aktore lanetan ere. Azal zuriko bat behar duten guztietan Unairi esaten omen diote...
Produkzioan lan egiteko kontratatzen naute, baina kasualitatez edo, pelikula guzti horietan txuri bat behar izan dute eta ni eskura naukatenez, ba beti ni izaten naiz hautatua.

Erraza al da aktore lana?

Oso zaila da aktore ona izatea. Ni oso txarra naiz, baina ez det protagonismo haundirik pelikula guzti horietan, beraz, ez daukat kontzientzia txarrik alde horretatik. Gainera produkzio lanean atseden txiki bat hartzeko aukera ematen dit. Hori bai dela zaila, produkzio lanak egitea Senegalen. Batez ere europearrekin egin-dako koprodukzioak baldin badira. Faktura kontuekin eta izaten dira arazoak. Normala den bezala, Europako produktorak gure lanean egiten ditugun erosketa guztien justifikazioa behar dute, baina ez dute ulertzen herrialde hone-tan faktura bat lortzea zein zaila den.



Unai eta Aida emaztea Aixa Lur alabarekin, Dakar hiriburuan. (Argazkia: K.Corbella).

«Aterrizatzera nindoan momentuan burua dudaz betetzen hasi zitzaidan. Ez nekien frantsesik, eta ezta zer egin behar nuen ere. Baina hiru hilabeteren ostean, nahiz eta bisadoa bukatu, argi neukan itzuliko nintzela»

Serie bat ere egina duzula entzun dugu, han nahiko arrakasta izan duena.

Hasieran nik ez nekien arra-

kasta zuenik. Zinema mundu-ko nere lagun batek telesail baterako txuri bat behar zute-la esan zidanean ez nion

garrantzia gehiegi eman.

Filmatzera joan nintzen larunbat goiz batean, gidoia eman zidaten eta orduerdia filmatzen hasi ginen. Nere paperean Espainiako droga saltzaile bat nintzen, eta bueltan bueltan, maitasun istorio bat tarteko, Senegalgo emakume bat tirokatu behar nuen.

Hori dena larunbatean grabatu eta gero igandean bertan emititu zen, igande

ZINE IBILBIDEA

'Kenu'. Zuz.: Arantza Alvarez. 2011ko Sevillako Europear Zinemaren Jaialdian aurkeztua. Corbellak produkzioa eta aktore lana, bertako arrantza-leei iruzurra egiten zien azal zurikoaren papera.

'La Pirogue'. Zuz.: Moussa Tourre. 2012 Cannesko sekzio ofizialean parte hartu. Eta *Prix Lumières 2013: Meilleur film francophone* irabazi zuen, baita *Étalon de bronze[2]* et *Prix de l'UMEOA au Fespaco 2013* ere. Aktore lana, Espainiako Itsasoko salbamenu-tuko langilearen papera.

'Tei'. (wolof hizkuntzan 'gaur'). Zuz.: Alain Gomis. Corbellak produkzio lanak eta aktore paper txiki bat bulegolari beze-la. Sariak eta oso kritika onak izan ditu pelikulak, besteak beste: *Seattle 2012: SIFF's Emerging Master honoree*, *Grand prix du festival africain de Milan 2012, Italie*, eta *Sélection en compétition officielle au festival de Berlin 2012*.

'Mbeubeus, itxaropenaren lurra'. Zuz.: Nicola Sawalo Cisser. Aurrekontu txikiko pelikula. Corbella, produkzio buru. Aktore lanak, FMiko kide beze-la, gazteleraz ere hitz egiten du eta pixka bat frantsesez.

«Nahiko paper kuriozosa da pelikulan ero bat bezela ager-tzen bainaiz karraxika», dio Corbellak. Montajea eta pos-produkzioan ere parte hartu eta baita soinu bandarako musikaren aukeraketan ere. Ez da oraindik estreinatu. «Oso ideia polita, baina teknikoki ez hain ona».

'419'. Zuz.: Eric Bartonio. Corbellak produkzio lanak eta aktore, Marokoko mugan, aduanan lan egiten duen poli-ziaren papera.

eguerdian; Senegalen familia elkartzen den asteko momentu bakarrean eta senegaldar guztiek ikusten duten seriean. Ene bada! Nik ez nekien hori!

Eta, jende askok ikusi al zuen?

Hurrengo egunean konturatu nintzen non sartu nintzen... Telesailean tirokatzen nuen neska (Lisa) Senegaldar guztiek maitatzen zuten pertsonajea zen. Polita, zintzoa, bere senarrak adarrak jartzen zizkion neska gaixoa eta abar. Eta ni bera tirokatu zuen mutila. Mark izena nuen telesailean. Hurrengo hilabeteak nahiko arraroak izan ziren niretzat, jendea kalean oihuka «E, Mark!!! Zergatik hil dezu Lisa!! E, zu, maltzurra!!!». Bueño alde batetik hori... bestetik nerekin argazkiak atera nahi zituen jendea kalean ni geldiarazten. «E, Mark utzi argazki bat egiten zurekin bestela nere emazteak ez du sinistuko ikusi zaitudanik» edo «Facebookerako argazki bat nerekin Mark!».

Momentu larriena Euskal Herrira bueltatzeko aireportuan nengoela gertatu zitzaidan. Pasaportea sinatzera nindoala, bertako polizia buruak keinu egin zidan beregana joateko. Ni kaka eginda nengoen; guztiz. Eta esaten dit: «ez dakizu Senegaleko polizi guztiak zure atzetik gabiltzala?». Pentsa, ni zuria baino zuriago. «Ez al zera zu Lisa hil duena?», eta barrez hasi zen. Nik ez nekien barre edo negar egin, baina Afrikan bizi izan dedan momentu larriena izan da, dudarik gabe.

Orain ba al duzu aktore lanik?

Beste telesail baterako deitu didate, paper fijo baterako: orain ere droga munduan dabilen txuri bat naiz eta senegaleko neska erakargarrien atzaparretan erori, eta zenbait gora-behera izan beharko ditut... hori da gaineratik esplikatu didatena behintzat.

Lehendabiziko aldiz bi hernaniarrekin joan omen zinen Senegalera, surfeko bidaia bat egitera. Eta bigarren aldiz, bakarrik joan zinen...

Bidai hori Mikel Aramendi eta Xabier Zuhigaren ideia bat izan zen. Mikelek esan zidan Senegalera gindoazela eta ni beti bezala, ados (Mikelekin asko bidaiatu baitut). Beraiek surf egitera etorri ziren eta lehenengo egunak hortan pasa genituen Dakarren. Azkenean, Kafountine izena duen herri batean pasa genituen egun batzuk. Bertan jakin nuen non zegoen nere bizitzaren hurrengo geltokia.

Bigarren aldian bakarrik etorri nintzen. Aterrizatzerantz nindoan momentuan burua dudaz betetzen hasi zitzaidan. Ez nekien frantsesik, eta ezta



Unai Corbella, Aida emaztearen familiakoekin. Argazkia 2012an aterea da Carabane islan, Senegalgo hegomendebaldean, Casamance ibaia itsasoratzen den puntuan, Ziguinchor eskualdean. (Argazkia: K.Corbella).

zer egin behar nuen ere. Baina hiru hilabeteren ostean, nahiz eta bisadoa bukatu, argi neukan itzuliko nintzela. Hiru hilabete horiek oso interesgarriak izan ziren niretzat. Oihanean bizitu nintzen.

Nola moldatu zinen oihanean?

Argindarrik eta urik gabe. Oilarrekin esnatu, kuboarekin putzura joan, ura atera, gelara itzuli... Hasieran igitaiarekin lastoa mozten eta gero matxetearekin palmerak mozten... Euro inguru irabazten nuen egunean. Baita arroz platera ere bazkaltzeko. Ez nuen gastu haundirik. Nere gelaren alokairua hilabetez zortzi euro, eta Casamancen bertako jendearekin gosaldutako eta afaltzea ez da garestia.

Gainera gaur egun nere emaztea den neska ezagutu nuen han, Aida.

Herrialde polita eta lasai xamarra dela entzuna dugu. Hala al da?

Herrialde zoragarria da. Ez dago estresik, denbora oso lasai dijoa eta zuk ere oso lasai ibili behar duzu erabat gustora egoteko. Gainera beti eguzkia daukagu eta horrek bizitasun haundia ematen du. Jendea alaia da, broma zalea. Printzipioz behintzat oso erakargarria da. Ni ez naiz batere damutzen etorri izanaz.

Dakarren bizi zara, hiriburuan. Erraz ohitzen al da hernaniar bat bizimodu horretara? Bertako hizkuntza ere, wolof-a, hitz egiten omen duzu...

Beharko ikasi! Hemen egune-

«Hemengo arazo haundiena da FMik, BMk eta OMCK bultzatuta prezioak izugarri igo direla ezinbesteko produktuetan. Ez pentsa alde haundia dagoenik Hernani eta Senegalen artean arroz prezioan, eta olioarenean; baina badago alde haundia soldatetan».

rokoan ez zara inor wolofik gabe. Gainerakoan, Senegal... hasieratik iristen zarenean liluraturuta uzten zaituen herria da. Gero, behin hemengo bizimoduan sartuz gero, hemengo soldaterekin, hemengo egunerokotasunean dauden arazoekin... gogorra ere bada. Herrialde honen barne munduan sartzen zarenean ez da erraza. Eta nik emaztea eta alaba bat besterik ez daukat, baina hemen etxe gehienetan zortzi-bederatzi familikide bizi dira! Ez dakit nola lortzen duten aurrera egitea, hemen Dakarren prezioak nahiko garestiak baitira hemengo soldatekin konparatuta. Nik *mirakulu senegaldarra* deitzen diot.

Familia ere baduzu, beraz.

Nola bizi zarete gaur egunean?

2011ko apirilean ezkondu ginen Aida eta biok eta 2012ko abenduaren 26an jaio zen Aixa Lur gure alaba. Hirurok bakarrik bizi gera. Zoriontsu.

Bera oso langilea da etxeko kontuetan, eta nere soldaterekin bizi gera, oso larri ibili naizen batean amak ere zerbait lagundu dit.

Zein da Senegalgo egoera ekonomikoa?

Senegaleko egoera geroz eta dramatikoagoa da, munduaren ispilu. Uste det hemengo arazo haundiena dela FMI, BM eta OMCK bultzatuta prezioak izugarri igo direla ezinbesteko produktuetan. Hemen egunero arroza jaten da eta ez pentsa alde haundirik dagoenik Hernani eta Senegalen artean arroz prezioan; edo olioarenean. Baina badago alde haundia Hernaniko eta Senegaleko soldaten artean. Nik hemen Dakarren beti esaten det: txurien prezioa, beltzen soldata.

Horrela ez goaz inora. Gainera kristoren korrupzioa egon da azken urte hauetan herrialde honetan, batez ere aurreko presidenterekin; estatuauren kuxak hutsak daude. Demografikoki ere izugarriko igoera izan du Dakarrek. Herrietatik jendea hirira dator, baita inguruko beste herrialdeetako jendea ere (Guinea, Costa de Marfil, Nigeria, Mali). Eta noski ez dago guztientzako lanik. Eta, lanik ez dagoenez, lapurreta kasuak igotzen ari dira.

Baina ez omen da herrialde arriskutsu bat, ezta?

Ez da herrialde arriskutsu bat. Berez oso herrialde paketsua da. Inoiz ez du gerra zibilik

izan eta hemen musulmanak, kristauak eta animistak elkarrekin bizi dira. Baita etnia ezberdinetako jendea ere. Inongo arazorik gabe. Baina egia da gauetan geroz eta lapurreta gehiago dagoela.

Emazteak eta alabak ezagutzen al dute Hernani?

Oraindik ez. Lehenengo urtean Aixa Lur oso txikia zen. Ea udaran joaten garen. Hori ekonomikoki eta paperekin dena ondo badijoa. Hemen esaten den bezala «Inxalah». «Jainkoak ala nahi badu».

Hernaniko zer botatzen duzu faltan?

Nik iada 10 urte daramazkit herrikan kanpo. Lehen madrilen bizi nintzenean maiz joaten nintzen bixitan. Orain ez. Egia esan gehien faltan botatzen dudana familia eta lagunak dira. Azkenean komunikazioa ez da bera, eta ezin dezu guztiz ondo adierazi zure sentimendua hemen zaudenean.

Gauza txikiagoak berriz, asko: Tiloseta larunbat goiz batean, foie pintxo eta mosto batekin; lagunekin afari bat elkartean, ama eta bere mutilagunarekin munduaren gorabeheraz eztabaidatu; aitarekin edonora joan bere argazki lanetan konpainia egiteko... Eta nola ez, janaria.

Hernaniarrei beste ezer esateko?

Norbaitek bixitan etorri nahi badu, hemen du etxe bat eta gida bat. Ekarri euskal janariaren bat eta dena konponduta. Laister arte!!!

ERREMONTEA - BANAKAKO MASTERREKO FINALA

Hirugarrena ere Urrizarentzat izango al da?

Banakako Masterreko finala jokatu dute gaur Urrizak eta San Miguelek, Galarretan, 16:00etatik aurrera. Banaka, bitan neurtu dira final batean eta bietan Urriza nagusitu da.

URRIZA eta San Miguel aurrez aurre izango dira gaur berriz, banakako final batean, eta errebantxa kutsuko finala izango da. Bi erremontistak bitan neurtu dira antzeko final batean eta bietan nagusitu da Iruñeako aurrelaria. Aurreko urteko Masterrean 30-18 irabazi zion San Migueli eta udan, Banakako Kutxabank Txapelketan ere, 30-24 irabazi zion. Urriza da faborito.

Finala Galarretan jokatu da. 16:00etan hasiko da jaialdia eta bigarren partidua izango da.

Urriza materialarekin haserre

Ostegunean aukeratu zuten finalerako materiala eta Urriza ez zen batere gustora geratu. Iruñeako aurrelariak haserre hitz egin zuen eta enpresatik gauzak zaildu egin nahi izan dizkiotela ulertarazi zuen: «Dezepzio-



San Miguel eta Urriza, osteguneko pelota aukeraketan.

Urriza: «Gainerako 20 pelotek bote haundiegia zuten eta neretzako kaltegarriak ziren. Baita ikuskizunerako ere».

natuta nago, haserre ez esatearren. 24 pelota zeuden aukeratzeko eta lau bakarrik zeuden komeni zaizkidanak. Gainerako 20ek bote haundiegia zuten eta neretzako kaltegarriak ziren. Baita ikuskizunerako ere. Guztien artetik, hain txarrak ez ziren 4 pelotak aukeratu ditut».

San Miguel oso ona da saka-tzen eta Urriza beldur da material honekin ez ote ditzion tanto asko sakez egingo: «San Miguelek egun ona baldin badauka, 15 tanto ere egin ditzazke sakez».

San Miguel, bere aldetik, lesio bat gainditu berri da; hilabete eta erdi ondoren bueltatu da kantxara: «Aurreneko partidua jokatu nuenean ez nintzen eroso sentitu, baina hobetzen joan naiz. Orain oso gustora nago, ez dut minik sentitzen eta errekupeatuta nago». Orain arteko bolada haustea du helburu. Dena dela, Urrizak esandakoarekin ez dago ados: «Erraz esaten da 15 tanto egin ditzakedala sakez, baina errealitatea beste bat da. Kopuru horretara iristea ia ezinezkoa da. Irabazteko, ondo sakatu beharko dut, baina baita asko peloteatu eta ondo». Bestela, ez dago zer eginik».

Argazkia: Maialen Andres.

◆ MOTOKROSA - EUSKADIKO TXAPELKETA



Fernando Gonzalez piloto hernaniarra, hirugarren geratu da

Fernando Gonzalez Monterok hirugarren postua lortu du Euskadiko Motokros Txapelketan, MX-2 senior elite mailan. Horretarako 8 karre-ratan hartu du parte; hala nola, Faltzesen, Ereñon, Obekurin, Zallan, Esprontzedan, Murtxanten... A eta B mailako 15 aurrenekoak elite mailan aritzeko sailkatzen dira eta bera tartean izan da. Karrera bakoi-tzean, bi manga korritu ditu 20 minutukoak+2 buelta. Azaldu duenez, denboraldi hasieran lokatz asko izan zuten lasterketetan eta gurgila asko hondoratzen zen, ia manillarekin lurra jotzeraino. Eguraldi ona ere izan dutela azaldu du eta motorrak ez duela aberiarik izan. ■

◆ ATLETISMOA - GIPUZKOAKO TXAPELKETA



Murua, Martinez eta Pavonek, dominak

Urtarrilaren 10 eta 11n Gipuzkoako pista estaliko Txapelketa jokatu zen, adin txikikoen artean eta atleta hernaniarrek 3 domina lortu zituzten. 13k hartu zuten parte. Jon Muruak zilarrezko domina lortu zuen 800 metroan; Maialen Pavonek brontzea, alturan; eta Malen Martinezek ere brontzea, 60 metro hesitan. Martinezek, minima lortu du 60 metro lisoan eta 60 metro hesitan estatu mailako txapelketan parte hartzeko, jubeniletan. Valentzian izango da martxoaren 8 eta 9an. Bestalde, Elgoibarko krosean maila desberdineko 9 atletek hartu zuten parte eta maila ona eman zuten. Podiuma lortzea, ordea, oso zaila dela gogorarazi dute atletismo taldek. ■

◆ ATLETISMOA

Adarraga Memoriala izango da bihar

Adarraga Memoriala jokatu da bihar. Benjamin, alebin eta infantil mailako neska-mutlak neurtuko dira, 11:00etatik aurrera, atletismo pistan. 6 lasterketa izango dira. ■

◆ BOLA

Taldeakako Txapelketa jokoan, bihar

Taldeko Txapelketan, bigarren eta azken tiraldia dute bihar Hernaniko bolariak, Olaberrian. CD Hernani hirugarren postuan da. Elur Txori eta Ur Mia ere lehia izango dira ahalik eta posturik onena lortzeko. ■

◆ SASKIBALDIA

Urretxuren aurka, etxetik kanpo

Hernanik Urretxuko Alumnos de Francisco Alberdi taldearen aurka jokatu du gaur, 16:00etatik aurrera, Urretxuko Aldiri kiroldegian. Aurkariak garaipen bat gehiago dute eta 2 postu aurrerago daude sailkapenean. Dena dela, hernaniarrek aurreko asteetako joku ona mantentzea lortuz gero, garaipena ez lukete oso urruti izan behar. ■

◆ WATERPOLOA

Lautadaren aurka, bihar

Nesken taldeak Lautadaren aurka jokatu du bihar 10:45etan, Mendizorrotzan (Gasteiz). Euskal Herriko Kopako partidua izango da. ■

◆ TXANTXANGORRI

Mus Txapelketan apuntatzeko aukera

Mus Txapelketa izango da urtarillaren 28an Txantxangorri elkartearen parte hartu nahi dutenentzat zabalik dago izen ematea. Elkartean apuntatu behar da osteguna baino lehen. ■

Zanbranara joateko, izen ematea zabalik

Otsailaren 15ean, 22an, martxoaren 1ean eta 8an, larunbatez, Zanbranako ehiza jardunaldiak izango dira, eta izena emateko aukera dago elkartearen tabloian. ■

Argazkiak bidaltzeko, azken egunak

Txantxangorriko argazki lehiaketara argazkiak bidaltzeko aukera dago, asteazkenera bitarte. Gaia: ehiza, arrantza eta tiroa. Argazkiak entregatzeko: info@txantxangorri.com. ■

ERRUGBIA - OHOREZKO MAILA

Hernanik lagunarteko partidua jokatu du gaur, Getxoren aurka

Partidua Landaren jokatu dute, 15:00etatik aurrera. Ligari, datorren astean ekingo dio berriz Hernanik. Partidu gehiago ere izango dira gaur.

ASTEBURU honetan errugbiaz gozatzeko aukera ederra izango da. Ohorezko Mailako taldeak datorren astean ekingo dio berriz ligari, baina gaur lagunarteko partidua jokatu du Getxoren aurka. Maila bereko taldea da, hain zuzen. Partidua Landaren jokatu da, 15:00etatik aurrera.

Euskal Ligan, Landarek Aieten jokatu du
Euskal Ligan lehiatzen ari den Landare taldeak ere partidua jokatu du gaur. Atletiko SS taldea izango du aurkari. 16:00etatik aurrera neurtuko dira Aieteko zelaian. Txinparta taldeak ere gaur jokatu behar zuen Euskal Ligako partidua, Uribealdearen aurka, baina atzeratu egin da.

Landaren, beste hiru partidua gaur eta bihar
Beste hiru partidua ere jokatu-



Maila berean jokatu duten bi talderen arteko lehia izango da.

ko dira asteburu honetan Landaren. 18 urtez azpiko taldeak Durango izango du aurkari gaur, 11:00etatik aurrera.

Eta 16 eta 14 urtez azpikoek, berriz, Gaztediren bisita izango dute bihar, 12:00etan eta 11:00etan. ||

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA				ESKU PELOTA - Gipuzkoako Trinkete Txapelketa			
Mut. Erreg. Oh.	Beti Gazte-Hernani	Mastegi	Gaur 16:00	Senior-Finalerdia	Ander Lopez/Loitegi	Donostia	Gaur 16:00 (3)
Emak. Euskal Liga	Hernani-Zarautz	Zubieta	Bihar 12:00	ESKU PELOTA - Euskal Herriko Txapelketa			
Mut. Erreg. Gor.	Hernani-Allerru	Zubieta	Gaur 13:30	Seniorrak	Esnaiz-Lizeaga/Lea Ibarra	Munitibar	Gaur 12:30 (1)
Jub. Mut. Eu.	Hernani-Lagun Onak	Zubieta	Gaur 16:00	Seniorrak	Oiarpe/San Sebastian	Oiarzun	Gaur 21:00 (1)
Jub. Mut. Oh.	Añorga-Hernani	Rezola	Bihar 11:30	Sub22	Urkizu-Altuna/Danak Bat	Hernani	Gaur 15:00 (3)
Jub. Emak. Eu.	Urnietta-Hernani	Urnietta	Gaur 18:00	ESKU PELOTA - Gipuzkoako Binakako Txapelketa			
Kad. Mut. Oh.	Hernani-Allerru	Zubieta	Gaur 11:30	Infantilak	Añorga/Macior-Ezeiza	Añorga	Gaur 18:30 (1)
Kad. Em. Oh.	Hernani-Oiarzun	Zubieta	Bihar 10:00	Infantilak	Larburu-Gorobategi/Mundarro	Hernani	Gaur 15:00 (6)
Kad. Em. 1.	Hernani Usurbil-Luberri	Zubieta	Gaur 18:00	Infantilak	Ezeiza II-Leiza/Azkoitia	Hernani	Gaur 15:00 (7)
Kad. Mut. 1.	SANSE-Hernani	Felix garin	Bihar 10:00	Infantilak	Iarrañaga-Salaberria/Allerru	Hernani	Gaur 15:00 (5)
Inf. Mut. Oh.	Billabona-Hernani	Arratzain	Gaur 11:00	Infantilak	Alde Zaharra/Bianco-Redondo	Loiola	Gaur 17:00 (1)
Infantil txiki err.	Antiguoko-Hernani	Berio	Gaur 10:30	Infantilak	Azkoitia/Arizmendi-Gorostidi	Azkoitia	Gaur 16:00 (2)
Inf. Mut. 1.	Hernani-SANSE	Zubieta	Gaur 09:30	Infantilak	Gorostidi-Zugasti/Ziotza	Hernani	Bihar 11:00 (1)
Inf. F-8	Amara Berri-Hernani	Martutene	Gaur 09:00	Alebinak	Lasa-J. Garmendia/Murumendi	Hernani	Gaur 15:00 (4)
ERRUGBIA				Alebinak	E. Garmendia-Perurena/Legazpi	Hernani	Gaur 15:00 (3)
Senior lagun.	Hernani-Gebro	Landare	Gaur 15:00	Alebinak	Tolosa/Tejedor-Fre	Beotibar	Gaur 17:00 (1)
Mut. Euskal Liga	Hernani Landare-Atletiko SS	Aiete	Gaur 16:00	SASKIBALOI			
Kad. (sub18)	Hernani-Durango	Landare	Gaur 12:00	Seniorrak	Urrebu-Hernani	Urrebu	Gaur 16:00
Inf. (sub16)	Hernani-Gaztedi	Landare	Bihar 12:00	Jub. 2. urt	Saskiagular-Hernani	Paco Yoldi	Bihar 12:00
Inf. (sub14)	Hernani-Gaztedi	Landare	Bihar 11:00	Jub. 1. urte	Hernani-Olarso	Kiroldegia	Gaur 16:45
ERREMONTEA				Kad. Neska	Hernani-Bera Bera	Kiroldegia	Bihar 10:00
1go partidua	Otaegi-Larrañaga/Seguroa-Aizpuru III	Galarreta	Gaur 16:00 (1)	Inf. Nes.2	Urbarte ISB-Hernani	Azpeltia	Gaur 10:45
Master-Finala	Urriza/San Miguel	Galarreta	Gaur 16:00 (2)	Inf. Mut. 1	Hernani-LEK Arrasate	Kiroldegia	Gaur 12:15
3. partidua	Uterga-Ion/Ezkurra-Agurrezabala	Galarreta	Gaur 16:00 (3)	WATERPOLO			
4. partidua	Matxin VI-Olazar/Juanenea-Endika	Galarreta	Gaur 16:00 (4)	Neskak	Lautada-Hernani	Mendizorrotza	Bihar 10:45

◆ ESKU PELOTA

Ander Lopezek, finalerdiak jokoan

Ander Lopez seniorrak Gipuzkoako Trinkete Txapelketako finalerdia jokatu du gaur, Urietako Julen Loitegi pelotariaren aurka. Partidu zaila izango da hernaniarrarentzat, aurrean maila handiko pelotaria izango baitu. Loitegi orain gutxi mundialean hartu du parte Uruguayan, Sub22 mailan, eta hirugarren geratu da. Iruran jokatu dute 15:15etatik aurrera. Horrez gain, Urkizu eta Altunak Euskal Herriko Txapelketako partidua jokatu dute gaur Hernanin. Sub22 mailan neurtuko dira Danak Bat taldearen aurka. 15:00etatik aurrera izango da. Beste bost partidua ere jokatu dira gaur Hernanin. ||

◆ FUTBOLA

Mutilek etxetik kanpo jokatu dute bihar Beti Gazteren aurka, eta neskek etxean

Hernaniko bi talde nagusiek bihar jokatu dituzte asteburu honetako partidua. Erregional Ohorezko Mailako taldeak etxetik kanpo jokatu du Beti Gazte talde lesakarraren aurka. 16:30etan izango da Mastegi zelaian. Emakumezkoen Euskal Ligako taldeak, berriz, etxean jokatu du. Zarautz izango du aurrez aurre, 12:00etatik aurrera. ||

◆ PALA

Umeentzat pala ikastaroa, otsailetik martxan

Otsaileko aurreneko astean hasiko da umeentzako pala ikastaroa. Egunak eta orduak honako hauek izango dira: astearte eta ostegunak, 16:45etatik 17:45etara. Taldea sortuz gero, ostiraletan ere bai, 17:30etan. Interesatuak, hernanikopalistak@gmail.com helbidera idatzi behar dute umearen datuak jarri: izena, adina, telefonoa eta oharak. Beste bi modu ere badaude: telefonoz deituta (625 033 314) edo frontoira azalduta astelehen edo asteazkenetan, 20:00etan. ||

◆ ARRAUNA - GIPUZKOAKO BATEL LIGA

Bigarren estropada bihar, Pasaian

Gipuzkoako Batel Ligako bigarren jardunaldia jokatu dute bihar 101 tripulaziok. Pasai Donibane eta Pasai San Pedro artean izango da lehia, 11:30etatik aurrera. Aurreko jardunaldian bezalaxe, Hernaniko Arraun Elkarte zortzi batelekin joango da: mutil infantilen 2, neska infantil-kadeteen 2, mutil kadeteen 3, eta neska jubenil-seniorren 1. Emaizta onak lortzea espero du klubak, eta ahal denetan, baita hobetzea ere. ||


Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

VII. URTEURRENA Antonio Aldunzin Aguirrezabala

2007ko urtarilaren 20an hil zen

Egunak, hilabeteak, urteak. Zazpi urte dira joan zinenetik. Orduro, egunero, hilabetero, hurbil-hurbil zaitugu gugandik. Senar ona, aita hobea, aitona kuttun. Oso zaila da ikastea zu gabe bizitzen. Zaindu gaitzazu zauden lekutik.



ETXEKOAK MAITASUNEZ
Urteurreneko meza, BIHAR, IGANDEA, eguerdiko 12:00etan, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN parroki lizan. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2014ko urtarilaren 18an

FUNERARIA ORBEGOZO

ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

TELEFONOAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Tanco** URNIETA - Idiazabal, 39 - 943 550942 ● **Gauez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA

GAUR

Lainoak izango dira nagusi, baina ez du euririk egingo. Arratsaldean, hego-haize indartsua men-debaldera aldatu eta ahuldu egingo da. Min.6° / Max.13°.

BIHAR

Eguraldiak okerrera egingo du, batez ere, arratsaldetik aurrera. Lainotuta egongo da eta euria egingo du. Min.5° / Max.10°.

(euskalmet)



GOIZUETA EZAGUTZEN- AZTARNA MEGALITIKOETAN BARRENA BUELTA

Nola bizi ziren orain 5.000 urte Goizuetan?

Orain 5.000 urte inguru Goizuetan gizakia bizi zela erakusten dute aztarna megalitikoak eta bi ibilbide eginak daude hauen berri emateko.

Umore Onakek horietako bat egiteko aukera jarri du, datorren igandean.

GOIZUETAK baliabide paisajistiko, arkitektoniko, natural eta historiko asko ditu, eta horien parte dira aztarna megalitikoak. Udalak bi ibilbide eginak ditu, aztarna megalitiko hauek non dauden erakutsi eta beraien inguruan aztertu eta jakin dena zabaltzeko asmoz. Datorren igandean ibilbide horietako bat antolatu du Umore Onak. Herriko plazatik abiatuko dira, eta Martitxene, Altzanburu, Añone, Errekaleku, Urgatara eta Montefrion barrena egingo dute buelta. Mendizaleei zuzendutako irteera da eta bueltaz gain, bazkaria ere antolatu dute. Azken honetarako izena eman behar da, Umore Ona elkartearen; prezioa, 15 euro.



Azken irteeran, Kixulabeletara, goizuetar asko animatu zen.

Mairubaratza asko egoteak erakusten du jende asko bizitu zela

Aztarna megalitikoak erakusten dute, noizbait, bertan, gizakia bizitu zela. Goizuetan aurkitu dituzten zaharrenak orain 5.000 urte ingurukoak dira. Nola bizi ote ziren?

Aurkitu diren ondare megalitikoaren artean daude Tumuluak, Dolmenak eta Cromlechak. Guztien artean, mairubaratzak dira gunee megalitiko hauek benetan berezi egiten dituztenak. Asko daude, mul-

tzo haundietan, eta horrek erakusten du, jende asko bizitu zela noizbait, bertan. Mairubaratzak orain 2.600 urte ingurukoak dira, eta 400 bat urteko epean egon zirela jakin da. Mairubaratza guneeetatik gertu

gainera, burdin minerala topatu da, eta horrek adituei pentsarazten die, garai haietan bazekitela burdina lortzen eta lantzen. Besteak beste, lan mota guztietako tresnak sortzen zituztela jakin da. ||

❖ ZINEA

‘El medico’ best sellerrean oinarritutako pelikula asteburuan, helduentzat

Noah Gordonen *El Medico* best sellerra pelikula bihurtu dute eta ikusgai izango da asteburuan, Biterin. Ingalaterran dago ambientatua, Xilgarren mendean, eta Rob Coleren bizitza kontatzen du. Rob umezurtz geratu zen, ama gaixotasun arraro bat medio hil eta gero. Momentu gogor horiek bizitu izanak animatzen du Rob mediku ikasketak egitera. Ibn Sina doktore jakintsua izango du irakasle. Filma ikusteko hiru sesio izango dira. Gaur 19:30etan eta 22:30etan, eta bihar 19:30etan. ||

‘Ernest & Celestine’ euskeraz, gazteentzat

Artzak ez du notario izan nahi; xagutxoak ez du dentista izateko gogo haundirik; *Ernest & Celestine* pelikula jarriko dute asteburuan Biterin, 12 urtetik gorakoen-tzat. Gaur eta bihar izango da ikusgai, 16:30etan. ||



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Neska euskalduna klase partikularrak emateko prest, 4. DBHraio. Deitu: 659 658 427

Etxebizitza eguzkitsua salgai zentroan. Oso egoera onean, 90 m2, 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Igogailua badu. Pana parkera begira. Oso polita. Deitu: 648 225 090

Pixua salgai zentroan, 4 gela, bi komun, sukaldea, egongela-jangela, 100m2. Trastelekua eta garajearekin. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

FAGOLLAGA
Jatetxea • Restaurante

San Sebastian bezpera
afari berezia + tamborrarako kit-a

• 59 € + bez

Tel. 943 550 031 | www.fagollaga.com